



TERMINOLOGIA BATZORDEA

- 2003-2005 Jarduketa-planaren barruan egindako lanak

Donostia, 2008ko otsailaren 7a



Terminologia Batzordearen egitekoak

[176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa]

21. artikulua.– Terminologiako Batzorde-atal Bereziaren egitekoak.

- a) Terminologiaren arloko lehentasunak ezartzea.
- b) Lanerako proposamenak egin eta urteko jarduera-planean sartzea.
- c) Terminologiako lanetarako irizpideak proposatzea.
- d) Kontzeptu bakarra izendatzeko hainbat termino daudenean, horien arteko lehentasunak ezartzea.
- e) Egindako terminologia-lanak onartzea.
- f) Finkatutako terminologia hedatzeko bideak proposatzea eta terminologia hori hedaraztea.
- g) Onartutako terminologiaren erabilera gomendatzea.
- h) Terminologiako Batzorde-atal Bereziaren ekintzen urteko oroitidazkia egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorrari aurkeztea, Euskararen Aholku Batzordearen urteko oroitidazkian sartzeko.
- i) Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak terminologiaren arloari buruz eskatzen dizkion oinarritzko azterketak egitea.

Terminologia-mailak (2003-2005 Jarduketa-planean definituak eta oso garrantzitsuak Dekretuak aipatutako egitekoak gauzatzeko orduan):

- Zientzia eta Teknologietako terminologia (nazioarteko terminologia).
- Gure terminologia tradizionala (arrantza, nekazaritza, burdingintza..., erreferentzia interesgarria).
- Hizkuntza arruntari loturiko terminologia (elikagaiak, jantziak, etxebizitza...maileguak modu masiboan sartzen dira eremu horietan).
- Administrazio eta Zuzenbideko terminologia.



2003-2005 Jarduketa-planaren barruan egindako lanak (1)

Terminologia Batzordeak 2003-2005 epealdian burututako lanak:

a) Terminologiaren arloko lehentasunak ezartzea:

Irakaskuntza —bereziki lanbide-heziketa eta unibertsitate-maila (enpresa-mundua)—, teknologia berriak; hizkuntza-paisaia: ekonomi jarduerak, errepideetako errotuluak, toki publikoetako kartelak eta produktuen eta tresnen etiketak, jatetxeen menuak..., artea eta herri-administrazioa.

b) Lanerako proposamenak egin eta urteko jarduera-planean sartzea.

2003-2005 Jarduketa-planaren barruan egindako hiztegiak:

Hizkuntza-paisaia: Merkataritza eta Kontsumoa

Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia; Turismo hiztegia; Oinetakoen hiztegia; Arropa-dendetako hiztegia; Elektrizitate-dendetako hiztegia; Norbere irudia, Ile-apaindegiak eta Estetika hiztegia; Altzarien hiztegia; Garraio eta Logistikaren Hiztegia; Errotuluen Hiztegia.

Irakaskuntza (Lanbide Heziketa, Enpresa)

Zenbakizko Kontrolaren hiztegia; Makina-erremintaren hiztegia; Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soinu hiztegia; Iturgintza hiztegia; Automobilien mantentzearen hiztegia; Burdindegiko hiztegia; Papergintza, Ingurumen-kimika eta Paper-pasta hiztegia.

Teknologia Berriak (Informatika)

*Bulegotika hiztegia
Hizkuntza Teknologien hiztegia*

Herri-administrazioa

*Europako hiztegia
Herri-administrazioen Kontratuen hiztegia
Toki-administrazioko hiztegia*

Artea

Museologia eta Museografia hiztegia

Bestelakoak

*Laburtzapenen hiztegia
Saskibaloizko hiztegia
Eskubaloizko hiztegia*

Oharra: ikus 5. orrialdea

c) Terminologiako lanetarako irizpideak proposatzea.

1. Irizpide linguistikoak (Hiztegi Batuan oinarrituta), irizpide terminologikoak, irizpide soziolinguistikoak / pragmalinguistikoak (dokumentu irekia) www.euskara.euskadi.net
2. Maileguen eta kalkoen gaineko irizpideak (dokumentu irekia) www.euskara.euskadi.net
3. Normalizazio-txostena (arazoak sortarazten dituzten terminoen kasuan erabiltzeko). www.euskara.euskadi.net
4. Euskarazko terminologian dauden arazoen inbentarioa (dokumentu irekia).

2003-2005 Jarduketa-planaren barruan egindako lanak (2)

d) Kontzeptu bakarra izendatzeko hainbat termino daudenean, horien arteko lehentasunak ezartzea.

Terminoen ponderazio-markak: 0. Baztertu beharreko terminoa 1. Termino erabilia 2. Termino proposatua 3. **Termino onartua** 4. **Termino normalizatua / gomendatua**

e) Egindako terminologia-lanak onartzea.

Prosezua hasita: Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia

f) Finkatutako terminologia hedatzeko bideak proposatzea eta terminologia hori hedaraztea.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (bestelako formatuak ere erabiliko dira)

g) Onartutako terminologiaren erabilera gomendatzea.

Marka bat finkatu zuen Terminologia Batzordeak gomendatutako terminoen ondoan jartzeko.



h) Terminologiako Batzorde-atal Bereziaren ekintzen urteko oroitidazkia egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorrari aurkeztea, Euskararen Aholku Batzordearen urteko oroitidazkian sartzeko.

i) Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak terminologiaren arloari buruz eskatzen dizkion oinarrizko azterketak egitea.



2003-2005 Jarduketa-planetik kanpo egindako bestelako hiztegiak / lanak

2003-2005 Jarduketa-planetik kanpo egindako bestelako hiztegiak / lanak, Terminologia Batzordetik pasatzeko proposatuak, ondoren EUSKALTERMen integratzeko:

- *Ingurumen hiztegia* (Ingurumen Sailak enkargatua)
- *Soziolinguistikako hiztegia* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak enkargatua, euskal soziolinguistikako lanetan erabiltzeko)
- *Ezintasun, ezgaitasun eta gaixotasunen sailkapena* (Osasunaren Munduko Erakundearena)
- *Lan Zuzenbideko hiztegia* (Deustuko Unibertsitatea)
- *Itsas Zuzenbideko hiztegia* (Eusko Jaurlaritzak enkargatua) (EUSKALTERMen dago)